

XI. SORGINEN LASTERKETA

2018/09/15, AXPE, ATXONDO, BIZKAIA

ARAUDIA

1. **Data eta lekua:** XI. SORGINEN LASTERKETA 2018ko irailaren 15ean egingo da, goizeko 10:00etan. Irteera eta helmuga Atxondoko Axpe auzoko San Juan plazan izango da, Bizkaian.
2. **Ibilbidea:** Probak Urkiolako Natur Parkea zeharkatzen du. 17,350 kilometroko luzera du eta desnibela 1300 metrokoa da.
3. **Parte-hartzea:** 18 urtetik gorako 300 atleta, mendizale eta kirolari guztiek dute proban parte hartzeko aukera, beti ere arautegi honetan adierazitako guztia onartu eta zehaztutako baldintza guztiak betetzen badituzte. Antolatzaileak korrikalari orori gomendatzen die mediku-azterketa osoa egitea, esfortzu probarekin.
4. **Mailak:** (proba ospatzen den egunean duten adina)
 - a. **Gizonezkoen maila**
 - i. **Seniorrak:** 18-45 urte bitartekoak
 - ii. **Beteranoak:** 45 urtetik gorakoak
 - b. **Emakumezkoen maila**
 - i. **Seniorrak:** 18-40 urte bitartekoak
 - ii. **Beteranoak:** 40 urtetik gorakoak
5. **Izen-ematea:** www.kirolprobak.com web orriaren bitartez.
6. **Prezioa:**
 - a. EKAINAK 30era arte:
 - i. 14 € - NORBERAREN txip horiarekin
 - ii. 15 € - txip horirik GABE
 - b. UZTAILAK 1 etik aurrera:
 - i. 19 € - NORBERAREN txip horiarekin+
 - ii. 20 € - txip horirik GABE

Zenbateko honek zera bermatzen du: proban parte hartzeko eskubidea, erantzukizun zibileko eta ezbeharretarako aseguruia, antolakuntzak parte-hartzaileentzako atondutako zerbitzuak erabiltzeko eskubidea, orogarri bat eta antolakuntzak probarako lor ditzakeen sarien zozketan parte hartzeko aukera.

7. **Seinaleztapena:** Ibilbidea behar bezala seinalizatuta egongo da, kartel adierazleekin eta ageriko baliza-zintekin. Kilometro-erreferentziak ibilbide osoan zehar jarriko dira. Ibilbidetik irteten den korrikalaria probatik baztertua izango da.
8. **Kontrolak:** antolakuntzak kontrol-gune bat jarriko du eta bertatik pasatzea ezinbestekoa izango da.
9. **Hornidura:** 2 anoa postu atonduko dira. Zabalaundin eta Asuntzen (Pol-Pol), helmugakoaz gain. Postu hauetan produktu energetiko eta freskagarriak eskainiko zaizkie parte-hartzaileei (ura, fruta, janari eta edari energetikoak e.a.).
10. **Baztertze arrazoiak:** antolakuntzako arduradunek korrikalaria probatik baztertze ahalmena izango dute ondorengo kasu hauetan:
 - a. Igarotze-kontroletatik ez pasatzea
 - b. Probako arauak hausten dutenean
 - c. Ezarritako ibilbideari zehatz-mehatz lotzen ez zaionean
 - d. Zaborra ezarritako guneetatik kanpo botatzen denean
 - e. Dortsala ondo ikusteko moduan ez daramatenean
 - f. Antolatzaileek esandakoari jaramonik egiten ez zaionean
 - g. Gainontzeko korrikalariekiko kiroltasunez jokatzeko ez denean.

Xede honetarako, probaren amaiera adieraziko duten bi korrikalariren parte-hartzea aurreikusten du antolakuntzak. Baztertua edo kanporatua den parte-hartzaile orok gertuen

duen kontrol gunean eman beharko du bere dortsala eta antolatzaileek agindu bezala utzi beharko du proba.

11. Sariak

- a. **Absolutuak (gizon eta emakumeak)**
 1. Txapela, garaikurra eta 150€
 2. Garaikurra eta 100€
 3. Garaikurra eta 50€
 - b. **Beteranoak (gizon eta emakumeak):** Garaikurra
 - c. **Atxondon erroldatutako lehen gizon eta emakumea: garaikurra eta otordua Atxondoko jatetxe batean.**
 - d. **Lehen 5 sailkatuei datorren urterako gonbidapena**
12. **Dorsal eta txipen banaketa:** Axpe auzoko frontoian jaso ahal izango dira **8:30etatik 9:30etara**.
13. **Ingurumena:** Lasterketa, bere zatirik handienez, Urkiolako Parke Naturaletatik igarotzen da eta, hau horrela, ingurunea errespetu osoz zaintzeko eta zaborrak kontrol-guneetatik kanpora ez botatzeko eskatuko zaie parte-hartzaile guztiei.
14. **Osasun-Laguntza:** Antolakuntzak sorospen eta salbamendu zerbitzuak atonduko ditu ibilbideko puntu estrategikoenetan. Era berean, duxak, komuna eta aparteko beharren bat duten edota ondoezak jota iristen diren kirolariei aurreneko laguntza emango dieten medikuak ere izango dira helmugan.
15. **Segurtasuna:** Antolakuntzak, hala adostuz gero, proba ordezkio ibilbidetik desbideratzeko, beharrezkotzat jotzen dituen aldaketak egiteko eta, eguraldiak hala eskatzen badu, lasterketa bertan behera uzteko eskubide osoa izango du. Honez gain, antolakuntzak beharrezkoa ikusten badu, zira eramatea derrigortuko da.
16. **Laguntza ezbeharretan:** Parte-hartzaileek betekizun izango dute istripuren bat izan duen edonor laguntzea eta kontrol-guneetan edozein ezbeharren berri ematea.
17. **Erantzukizuna:** Antolakuntzak erantzukizun oro ukatuko du istripuren bat gertatuz gero edota zabarkeriaz jokatzeko bada; eta baita parte-hartzaileen objektu pertsonalei dagokienez ere. Horrela bada, parte-hartzaileek izango dute euren buruari edota hirugarren pertsonari eragindako kalte ororen erantzukizuna.
18. **ONARPENA:** Inskripzioa egiterakoan, parte hartzaile guztiek onartzen dute Araudi hau ezagutzea eta bertan aipatzen denarekin ados egotea. Inskripzioan emandako datu guztiak, antolatzaileak lasterketaren inguruko funtzioentzat soilik erabiliko ditu. Korrikalari orok, bere parte hartzearekin, lasterketan zehar ateratako irudiak (argazki eta bideoak) sarean edo bestelako komunikabideetan argitaratzeko baimena ematen die antolatzaileei; beti ere, antolakuntzari kontrakoa adieraziz eskaera-idatzi bat bialtzen ez badio.
19. Araudi honetan jasotzen ez diren gainontzeko kontuen osagarri gisa, EMF-FVM-ko mendi lasterketen arautegia jarraituko da, edo antolatzaileen iritzia araberako erabakiak hartuko dira.